

Kantuz nahi bizi

Abesti beraren bost bertsio bildu ditu 'Jaso dezagun euskara' izenburuko diskoak

JASO DEZAGUN EUSKARA; horixe da aurtengo Nafarroa Oinezeko aukeraturiko leloa, eta baita jaia dela-eta konposatutako kanten izenburua ere. Nafarroa Oinezeko prestakuntza lanetan, laguntzeko borondatea izaten da nagusi, guztiak edonon laguntzeko prest izaten dira; eta borondate horren beraren emaitza da aurtengo leloa, inork eskatu gabe aita batek ikastolan proposatu baitzuen egun batez. Antolatzaileek diotenez, leloa bi arrazoren-gatik gustatu zitzaizen: Ikastolaren izena daramalako eta festaren filosofiarekin bat egiten duelako.

Leloak jaiaren kantari izenburua eman zion gero. Kantak garrantzi berezia izaten ohi du beti Nafarroa Oinez festan, eta aurtengo ideia berri bat izan dute antolatzaileek. Gozategikoei eskatu zieten musika prestatzeko, eta Jon Maiak egin zituen hitzak. Diskoa osatzeko, musika estilo ezberdinak elkartzea otu zitzaizen, eta bost bertsio ezberdin egin zituzten: Gozategik, Pablo Sarasate Orkestrak eta Iruñeko Ganbera Abesbatzak, Hemendik At taldeak, Xut Fanfarreak eta Barrikadak kantatu dute *Jaso dezagun euskara*.

Nahi hainbat esanahi

Kantua eta leloa erabakita, aurtengo Nafarroa Oinezko logotipoa egitea falta zitzaizen Jaso Ikastolakoei. Eta horretarako Cabodevilla Asociados Iruñeko enpresarengana jo zuten. Haiek egindako hainbat ideia aztertu ondoren onartu zuten, eta jaiaren koordinatzaile Patxi Arellanoren arabera, «oso ibilbide luzea izan du orain duen itxura hartu arte».

■ bost bertsio, kanta bat



ADOLFO LAKUNTZA

Hemendik At. Iruñeko taldeak egokitzapen teknoa egin du. Goazen kantarekin egin zuten bezala, bertsio honekin jende guztia jarri nahi dute dantzan.



ANDER GILLENEA

Gozategi. *Jaso Dezagun Euskara* kantaren musika egin dute, eta haiena da bertsio orijinala. Dantzarako bertsio egokiena egin dute, trikitixa eta panderoarekin.



MIKEL SAIZ

Xut Fanfarrea. Iruñeko fanfarre zaharrenetarikoa bat da Xut. Nafarroa Oinezeko diskoan Euskal Herriko eta kanpoko musika tresnak erabili dituzte kanta egiteko. Haiekin, Jaso Ikastolako haurrak dira kantari.



OSKAR MONTERO

Iruñeko Ganbera Abesbatza eta Pablo Sarasate Orkestra. Orkestra klasikoaren formakuntzaz egindako bertsioa, lasaiagoa. Jon Maiaren hitzak Ganbera Abesbatzak kantatu ditu.



JOSEBA OLALDE

Barrikada. Abestiaren bertsio rockeroa egin dute. Bihar, Nafarroa Oinez festan, La Venganza de la Abuela taldeak emanen du haiek moldatutako egokitzapena.

'Jaso dezagun euskara'

Hauek dira aurtengo Nafarroa Oinez jairako konposatu duten kantaren hitzak:

Iruñea hiri
kale ta harresi
Iruñea berria
historia bizi
semaforoak berde
aurrera bi gezi,
2000rantz abian
bimilaka suzi
espaloietatik at
bidera goazi

Hiriaren mintzoa
mintzoaren hiri
altxorren altzoa
ahozko agiri
mende, mendi eta men
guztietaz gairi
altxorren altzoa
ahozko mirari
euskara jaso haugu
orain jalgi hadi

San Fermin bera ere
heldu da bestara
euskara eguneroko
zapi gorria da
orain izan behar da
izanen bagara
batak bertzeragi
plazatik zetara
euskarak Iruñea
Iruñeak euskara


Jaso dezagun euskara
euskara eguneroko
zapi gorria da
Jaso dezagun euskara
orain izan behar da
izanen bagara

Cabodevilla enpresan egindako lehenengo irudia alderantziz zen. «Txillidaren eskultura baten antza hartzen

genion eta aldatzea pentsatu genuen; norbaitek buelta eman eta gustatu zitzaigun; orduan interpretazioak ema-

ten hasi ginen». Interpretazio nagusiak Iruñeko armarraren lehoia dela dio. Baina beste anitz ere egin dituzte;

batzuentzat logotipoak hiritartasuna adierazten du, birlilguneak, bidegurutzak, kaleak, errepideak,...



ERICE
GIDATZEN IKASI
EUSKERAZ

San Juan Bosco, 16- 31007 IRUÑEA- Tel.: 948 26 73 11

Pskolabis

- ✓ Ogitartekoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Pintxoak

San Lorenzo kalea, 14
Tf.: 948 22 81 42
IRUÑEA

Txalaparta
editorial

Navaz y Vides, 1, 2.
31300 TAFALLA
☎ 948 703934
Faxa: 948 704072
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.com

Egunkaria

IRAGARKIAK

943
300 222

IRUNAZARRA Taberna Jatetxea

Iruña Zaharrena bihotzean

JATETXEKO EGUNEKO MENUA

SAGAROTEGIKO EGUNEKO MENUA (Menu bereziak larunbat, igande eta jaiegunetan)

ORAIN SAGAROTEGIA ERE BAI

Iruñazarra duzu, Alde Zaharrean, tradizio handieneko lekuetako bat. Oso egokia ospakizun eta lan bakoitzaren elkarbizitzarako.

ERRESERBAK
☎ 948 22 51 67

Mercaderes k/ 15 - IRUÑA